



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

### 10/19-PROM-2016 zenbakidun LEA Proiektua

#### Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	3
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK.....	5
1. Elkargokide izatea.....	5
A. Elkargo bateko kide izan beharra.....	5
B. Elkargo bakarreko kide egitea estatuko lurralde osorako.....	8
2. Ordainsariak.....	9
A. Ordainsariei buruzko txostenak eta gutxi gorabeherako ordainsariak.....	9
B. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua.....	10
3. Oniritzia.....	11
4. Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea.....	13
5. Elkargoak elkargokideei lehia egitea.....	15
6. Gaizki egindako lanengatiko erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak.....	16
7. Bezeroak lortzea.....	17
8. Elkargoak kideen jarduera kontrolatzea.....	18
9. Argitara ematea.....	19
10. Perituen zerrendak.....	20
11. Elkargoaren baliabide ekonomikoak.....	22
12. Lanbide-sozietateen inskripzioa.....	23
IV. ONDORIOAK.....	23

#### Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duela, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuei (aurrerantzean, Estatutuak) buruzko txosten hau ematea onetsi du, 2016ko apirilaren 26an eginiko bilkuran.



## I. AURREKARIAK

1. 2009ko ekainaren 9an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzu (LDEZ) ohiak 2002an onartutako Estatutuen txostena eman zuen. Txosten horretan, besteak beste, gomendatu zuen gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak finkatzeari buruzko erreferentzia guztiak ezabatzea, eta hainbat gogoeta egin zituen bidegabeko lehiari, oniritziei, gaikuntzari eta publizitateari buruz<sup>1</sup>.

2009ko abenduaren 22an Elkargoak haren Estatutu-aldaketari buruz bidalitako proposamenaren txostena eman zuen LDEZak, eta oraingo honetan, gomendatu zuen funtsezko helburuei, funtzioei, nahitaez elkargoko kide egiteari, elkargoko kide egiteko baldintzei eta Gobernu Batzordearen funtzioei buruzko zenbait artikuluko kentzea ala aldatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Sailak hala eskatuta, 2011ko otsailaren 14an LDEZak Elkargoak izapidetutako Estatutu-aldaketa berriaren txostena eman zuen. Oraingo honetan, gomendatu zuen artikuluko zehatz batzuk kentzea ala aldatzea, komunikazio-betebeharrari, ordezkaritza eskusiboari, nahitaez elkargoko kide egiteari eta elkargoko kide egiteko baldintzei zegokienez, besteak beste<sup>2</sup>.

2016ko martxoaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan, Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan aldaketa lehiari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren. Proposatutako aldaketek 4. artikuluko h), j) eta ñ) hizkiak eta 60. artikuluko d) hizkia barne hartzen dituzte.

---

<sup>1</sup> 2002ko maiatzaren 31ko Agindua, Justizia, Lana eta Gizarte-segurantzaren sailburuarena. 1998ko urtarrilaren 19ko EHAA, 151. zk. LDEZren txostena igorri zen datan, abenduaren 22ko 25/2009 Legea ez zegoen oraindik onartuta, eta, hortaz, bidezko zeritzon Elkargoak lege hori onartzeko itxarotea haren Estatutuak aldatzeko. Legearen bidez, hainbat lege aldatu ziren, Zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzko legera (*Omnibus* Legea deiturikoa) egokitzeko.

<sup>2</sup> Data horretan, *Omnibus* Legea indarrean zegoen dagoeneko. Aldaketak Agindu honen bidez onartu ziren: Agindua, 2012ko otsailaren 2koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena. 2002ko martxoaren 23ko EHAA, 60. zk.



## II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Erakunde hau arautzen duen Legeak erakunde honi ezartzen dion eskumena dela-eta ematen da txosten hau. Funtzio horren helburua da euskal merkatuetan lehia eraginkorra sustatzea, eta, ahal dela, bermatzea. Horretarako, zehatzaileak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horien artean, besteak beste, herri-administrazioekiko harremanak nabarmentzen dira<sup>3</sup>.

3. Gure antolamendu juridikoak oinarri konstituzionala dauka, elkargo profesionalak arautzeari dagokionean. Hain zuzen ere, Konstituzioko 36. artikulua honakoa xedatzen du: «legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Elkargoetako lanbideetan lehia askea izateko beharra eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea (aurrerantzean, LDL) osorik betetzeko beharra izan behar ditugu abiapuntu. Hori Erkidegoko Zerbitzu Zuzentaraua aplikatzean egin beharreko arau-aldaketen ondorioa da. Lanbide-elkargoen estatuko araudia Zuzentarau horren aurretiko araudian oinarritzen da: 1974ko Lanbide Elkargoen Legea (aurrerantzean, LEL). EAEn, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko Legea da aplikatzen dena (aurrerantzean, EEL). Dena dela, gaur egun Zuzentarau hori Estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan betearazteko hainbat xedapen daude, eta aldaketak eragin dituzte arau horietan, eta, horrenbestez, elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Horien artean, bereziki kontuan hartzekoak dira Aterki Legea eta Omnibus Legea (25/2009), eta EAEn, berriz, 7/2012 Legea<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> Ikus 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa; zehazki, 3.3 eta 10.n artikulua (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).

<sup>4</sup> Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak (BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak (BOE-A-2011-4117), eta 3/2013 Legeak, ekainaren 4koak (BOE-A-2013-5940).

2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (2006ko abenduaren 27ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36).

2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa, (1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk), 7/1997 Estatuko Legeak, apirilaren 14koak, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoak eta elkargo profesionalen buruzkoak ekarritako aldaketekin (1997ko apirilaren 15eko BOE, 90. zk=).



EELren xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea, oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartuta». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, hau ezartzen da Espainiako Konstituzioaren manamendu horretan: «Agintariek ezin izango dute hartu, ez zuzenean ez zeharka, Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea oztopatzen duen neurririk».

Horrenbestez, EELk arautzen du Psikologia Elkargoa, eta, zehazki, Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko asmoz 2012an egindako aldaketen araberako testuak. Arau horren 9. xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian birmoldatzen diren unean».

**4.** Elkargoek arautegia bete beharko dute estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, Estatutuen testua dena delakoa ere, elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ezarri ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako.

**5.** Estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan, hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarrizko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta

---

18/1997 euskal Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena (1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.).

17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzkoa (Aterki Legea deiturikoa), 2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.; 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, Zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena (Omnibus Legea deiturikoa), 2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zk.; eta 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, Eusko Legebiltzarrarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa (2012ko apirilaren 30eko EHAA, 84. zk.).



adierazi dugu dagozkion Estatutuetoako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun horri buruz.

Halaber, adierazi behar dugu LEAk bi gomendio mota egingo dituela txosten honetan: batetik, araudiaren balizko urraketei buruzkoak, eta, bestetik, indarrean dagoen legediaren kontrakoak izan ez arren, lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

### **III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIARI BURUZKO HAUSNARKETAK**

#### **1. Elkargokide izatea**

##### **A. Elkargo bateko kide izan beharra**

6. Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen du, eta Konstituzio Auzitegiak (aurrerantzean, KA) hura interpretatu eta honako hau ezarri du: «konstituzionalki zilegi izango da, interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean»<sup>5</sup>. Horrenbestez, KAk legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesionalak eratzean elkartzeko eta lanbidea aukeratzeko askatasunak muga ditzan –bereziki, elkargoko kide egitera behartuz–, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean<sup>6</sup>.

Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

---

<sup>5</sup> Konstituzio Auzitegiaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituena. Era berean, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioako Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienean elkargoko kide nahitaez izatea beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak ez dituztelako garatzen lanbidearen antolamenduaren arabera, hain zuzen.

<sup>6</sup> Halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epai hauek daude: 1983ko otsailaren 10ekoa –As. *Le Compte, Van Leuven* eta *De Meyere* kasua (Belgika) eta 1993ko ekainaren 30ekoa –*Sigurður A. Sigurjónsson* kasua (Islandia), A seriea, 264. Azken horretan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxilari bati taxi-gidarien erakunde bateko kide egiteko lege ezarritako betebeharra.



- Beharrezkoa denean, hau da, interes orokorreko ezinbesteko arrazoi batek justifikatzen duenean (5. artikulua). Ildo horretatik, ordena publikoarekin, segurtasun publikoarekin, osasun publikoarekin edo ingurumena babestearekin lotutako arrazoiek justifika dezakete erabaki hori (12. artikulua).
- Haren helburua lortzeko egokia denean, hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean (5. artikulua).
- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean, hau da, ez zuzenean ez zeharka diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera (5. artikulua).
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean (5. artikulua).

EAEn, lanbide batean jarduteko elkargo bateko kide izatea eskatzeko aukera hori EELaren 30.1 artikulua arautzen du. Xedapen horrek hau ezartzen du: «elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kidea izatea, dagokion legeak horrela jasotzen duenean»<sup>7</sup>. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso beharko da, hark LDLren 4. artikulua babesa izango badu<sup>8</sup>.

Oro har, *Omnibus* Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen; baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma<sup>9</sup>. Une honetan, eta elkargo profesionaleri buruzko Legearen 3.2 artikulua

<sup>7</sup> 2013ko urtarrilaren 17ko Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko BOE, 37. zenbakia) Andaluziako elkargo profesionaleri buruzko legearen gainekoa da, eta, horren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboa da elkargoko kide derrigorrez egin beharra ezartzea.

<sup>8</sup> Aipatutako 4. artikulua horretako «Legeak salbuetsitako jokaerak» epigrafeak honako hau ezartzen du: «Lehiaren defentsaren arloko erkidegoko xedapenak behin-behineko aplikazioari kalterik egin gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei». Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira».

<sup>9</sup> Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrek: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargo bateko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, hartara zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko, bai eta interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kalte daitezkeen jardueretan ere; adibidez, pertsona fisikoaren osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan».



arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena dela, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, eta Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraituz, hura indarrean jarri zen unean nahitaezko zirenak finkatu dira. Horregatik, aldi baterako, lehendik zeuden elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauan ezarrita egon arren.

## 7. Psikologoen Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Legeak honela dio 2. artikuluan:

Psikologoen Elkargo Ofiziala nazio-mailakoa izango da, eta tituludun profesional hauek bilduko dira bere baitan: Psikologian lizentziadunak eta doktoreak; Filosofia eta Letratuan lizentziadunak eta doktoreak —Psikologiako atala edo adarra—; eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziadunak eta doktoreak —Psikologiako atala edo adarra—.

Elkargo horretan sartzea ezinbestekoa izango da psikologo-lanbidean aritzeko<sup>10</sup>.

Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofiziala Dekretu bidez sortu zen 2011n<sup>11</sup>. Bereizketa bidez sortu ziren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialak. Dekretu horrek ez zuen elkargoko kide egiteari beharrezkoa izateari buruzko ezer ezarri —ezin zitekeen bestela izan, beheragoko arau-maila baitauka—. Gai hori aipatutako 43/1979 Legeak xedatutakoaren arabera arautzen da oraindik ere, *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorrak aipatzen duen legea onartzen ez den bitartean.

## 8. Estatutuetan, manamendu honetan lantzen da Elkargoko kide nahitaez egiteko beharra:

### 5. artikulua. Elkargoan sartu beharra

Bizkaiko Lurralde Historikoan, zeinahi modalitatetan psikologo-lanbidean jarduteko, ezinbesteko baldintza izango da Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialean sartzea, baldin eta psikologoak lurralde-eremu horretan badu haren lanbide-helbidea —bakarra edo nagusia—, eta, betiere, derrigorrean izan behar bada elkargokide, psikologo-lanbidean jarduteko.

## 9. Hasteko, zehaztu behar dugu lege estatal batek baino ezin duela ezarri Elkargoan derrigorrez sartu beharra lanbidean jardun ahal izateko. Egun, psikologoen lanbidean jarduteko nahitaezkoa da Elkargoko kide egitea, eta

<sup>10</sup> 43/1979 Legea, abenduaren 31koa, Psikologoen Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa (1980ko urtarrilaren 8ko BOE, 7. zk.).

<sup>11</sup> 247/2001 Dekretua, urriaren 23koa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargo Ofizialak sortzekoa (2001ko azaroaren 6ko EHAA, 214. zk.).





horrek mugatu egiten ditu bai lehia bai lanbidean askatasunez aritzea; azken batean, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluan aitortzen den lan egiteko eskubidea urratzen du. Mugatze horiek oinarri bakarra izan dezakete: interes publikoa eta ondasun juridikoak babesteko arrazoi sendoak izatea, nahitaez elkargoko kide egiteko beharra duen lanbidean askatasunez aritzea baino sendoagoak direnak. Dena den, gaur egun, mugatze hori behar besteko maila duen arau batek babesten du.

Edonola ere, aginduaren idazketa aldatu behar da, argi gera dadin edozein elkargotako kide egitea nahikoa dela lurralde nazional osoan jarduteko. Elkargoko kide egitearen arloko lurralde-murriztapenak ezabatu egin ziren Zerbitzuen Zuzentaraua onartu zenean, bermatzeko ez zirela beharrezkoak ez ziren eta interes orokorrari kontra egiten zioten mugak sortzen merkatuan sartzeko.

## **B. Elkargo bakarreko kide egitea estatuko lurralde osorako.**

**10.** EELren 39.4. artikulua honako hau jasotzen du: «Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta elkargoko kuotak bere baitan ez dituen beste zerbitzu batzuegatik inolako beste ordainik ere, beren kideei normalean prestazioengatik eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte». Halaber hartu behar dira aintzat Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua eta EPLaren 3.3 artikulua. Artikulu horrek, Europako Batasuneko arauari jarraiki, xedatzen du lanbide bat lurralde-elkargotan antolatzen bada, nahikoa dela horietako batean kidetzea lurralde nazional osoan jardun ahal izateko.

Bestalde, EELren 38.1. artikulua elkargokideak bitan sailkatzen ditu: aktiboak ala ez aktiboak.

**11.** ESTATUTUEI 6. bis 1.4. artikulua, elkargokide diren psikologoei buruzkoak, honako hau jasotzen du:

### **6 bis 1 artikulua. Elkargokide motak**

(...)

4. Psikologo elkartuak.

Psikologiako edozein profesional sartu ahal izango da Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofizialean, psikologo elkartu gisa, baldin eta Espainiako beste edozein elkargotan badago (Psikologoen Elkargo Ofiziala), eta estatutu hauetan eskatzen diren titulazio-betebeharrak biltzen baditu.

Beste lurralde-elkargo batzuetako psikologo elkartuek, Bizkaiko lurralde historikoan lanean aritzeko, Bizkaiko Elkargoaren eremuan lanbide horretan jarduteko arauak bete beharko dituzte.





(...)

**12.** Esan bezala, EPLaren 3.3 artikuluan xedatutakoaren ildotik, profesio bat lurraldekako elkargotan antolatzen denean, nahikoa izango da haietako batean kidetuta egotea lurralde osoan jardun ahal izateko. Ondorioz, Estatutuak ezin du baldintza gehigarririk ezarri beste lurraldeetako elkargoen kide diren profesionalak haien lanbidea aske gauza dezaten Elkargoaren lurralde-eremuan.

Nahiz eta EPLak ezartzen duen lanbide-elkargoen estatutuek elkargokide-sailkapen desberdinak ezar ditzaketela, bereizketa horrek ezin du hutsegiterik eragin, eta estatutuen idazketan argi utzi behar da elkargoko kide egitea borondatezkoa dela eta haren lana beste edozein lurraldetan gauzatzen duen edozein profesionali Bizkaian jardutea eragozten dion trabarik ez dagoela.

## **2. Ordainsariak**

### **A. Ordainsariei buruzko txostenak eta gutxi gorabeherako ordainsariak**

**10.** Omnibus Legeak ezabatu egin zuen EPLaren 5. artikulua elkargo profesionaleri esleitzen zien funtzio hura, hau da, zerbitzu-sari orientagarriak ezartzea, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan<sup>12</sup>. EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalak «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak dira «kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak»<sup>13</sup>. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan

<sup>12</sup> EPLaren 14. artikulua: ordainsariei buruzko gomendioak debekatzea: «Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionaleri buruzko baremo orientagarriarik, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

<sup>13</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondorengo Elkargo Profesionaleri buruzko txostena*. Madril, 2012ko apirilaren 26a, in LBN <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Noticias/tabid/105/Default.aspx?Contentid=475051>. 71. or.



prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

**11.** Indarreko Estatutuetan 4. artikuluren ñ) hizkian arautzen da gai hori.

**4. artikulua. Eginkizunak.**

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

n) Ordainsari profesionalak eztabaidatzen direneko prozedura judizial edo administratiboetan informazioa ematea. Ordainsarien baremoak ezartzea, nahiz eta orientagarriak besterik ez izan.

**12.** Elkargoak, beste aldaketa batzuen artean, 4. artikularen ñ) atala ezabatzea onartu du.

Aldaketa hori ona da, Legeak berariaz debekatzen baitu ordainsari-baremoak ezartzea eta jokabide horrek LDL urratzen baitu.

**B. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua**

**13.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24.f) artikulua xedatzen du elkargoen berezko eginkizun bat dela “ordainak, soldatak eta zerbitzu-sariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan”.

EPLaren 5.p artikularen arabera, elkargoen eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien hartzekoen, sarien edo ordainsari profesionalen kobrantzaz, betiere, elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituenen eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

**14.** Estatutuetan 31.13.) artikuluan arautzen da gai hori.

**31. artikulua. Gobernu Batzordearen eginkizunak.**

Elkargoaren Gobernu Batzordeari honako egiteko hauek dagozkie:

13. Emandako zerbitzu, proiektu, txosten eta abarreatatik sortutako ordainsariak kobratzeaz arduratzea, elkargokideek eskatuta. Kasu horietan, Elkargoak ehuneko bat atxikiko du, Gobernu Batzordeak onartuko duena. Psikologoaren figura –gardena, kalitatezkoa eta etika profesionalduna den lanbide bateko profesional gisa– sustatzeko, Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialak zerbitzu horiek ezarriko ditu, eta elkargokide arruntek eta lanbide-sozietateek zerbitzu horiek erabiltzea bultzatuko du.



**15.** Agindu horren idazketak Elkargoak ordainsariak kobratzeko funtzioa lanbidearen gardentasunarekin, kalitatearekin eta etikarekin lotzen du, eta, horregatik, zerbitzua elkargokideen artean sustatzearen alde egiten du.

«Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua» izenekoak beren kideen jardura kontrolatzeko tresna posibletzat jo da<sup>14</sup>. Horri dagokiola, gogorarazi behar dugu Elkargokidearen jardunak ez duela –ez zuzenean ez zeharka– preziorik ezarri edo horien gaineko orientaziorik eman behar. Hortaz, Elkargoak ekidin behar du lehiaren kontrako jokabideak izatea, gai horren gaineko funtzioak betetzen dituenean. Nolanahi ere, argi utzi behar da profesionalak askatasunez eta berariaz eskatu behar dutela.

Ez dugu ikusten lotura zuzenik dagoenik ordainsariak elkargoaren bidez kobratzearen eta kalitate, gardentasun eta etika profesionalaren hobekuntzaren artean.

Horrenbestez, honako hau esaten duen **azken zatia ezabatu beharko litzateke**: «Psikologoaren figura –gardena, kalitatezkoa eta etika profesionalduna den lanbide bateko profesional gisa– sustatzeko, Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialak zerbitzu horiek ezarriko ditu, eta elkargokide arruntek eta lanbide-sozietateek zerbitzu horiek erabiltzea bultzatuko du».

### 3. Oniritzia

**16.** Azaroaren 21eko EELaren 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko funtzioak, eta Zehazki, i) paragrafoan, eginkizun hau ezartzen du: lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionali oniritzia ematea, baina soilik bezeroek (herri-administrazioak barne) berariaz eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Oniritziaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Oniritziak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokienez. Oniritziak ez ditu inolaz ere zerbitzu-sariak eta kontratuko gainerako baldintzak barne

---

<sup>14</sup> «Zerbitzu-ordainak elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde zuzenik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea profesionalak itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, azaldutakoa bezalako lehiaren aurkako aurretiko akordiorik ez badago ere, haien kobrantzak elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia bada, horiei buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak egotea erraz lezake», in LBN. *Elkargo profesionali buruzko txostena*. op. cit., 73. or.



hartuko, alderdiek askatasunez hitzartu ahalko baitituzte. Halaber, ez du jasoko lanbide profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa. Elkargoaren oniritzia ezinbestekoa den kasuetan, onespeneraren kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute oniritziaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da<sup>15</sup>.

Gainera, EPLaren 13.3. artikulua eranstean du: «Elkargoak ikus-onetsitako lan profesional batek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenean».

Elkargoen nahitaezko oniritziari buruzko Errege Dekretuan, ez da aipatzen psikologo batek egin dezakeen eta oniritzia nahitaez behar duen lanik<sup>16</sup>.

#### 17. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

##### 4. artikulua. Eginkizunak.

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

j) Zehazten diren kasuetan lan profesionalari oniritzia ematea. Oniritziak lanaren egilea izatea eta egilearen titulazioa, gaitasuna eta prestaketa egiaztatuko ditu, eta bai lanaren eduki formala ere.

#### 18. Elkargoak honako aldaketa hau onartu du:

##### 4. artikulua. Eginkizunak.

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

j) Lan profesionalari oniritzia ematea, legeak hala ezartzen duenean edo erabiltzaileek berariaz eskatzen dutenean. Oniritziak lanaren egilea izatea eta egilearen titulazioa, gaitasuna eta prestaketa egiaztatuko ditu, eta bai lanaren eduki formala ere. Elkargoak ez du erantzukizunik bere gain hartuko oniritzitako proiektuan geroagoko akatsik balego. Kobratu beharreko prezioa publikoa eta emandako zerbitzuaren araberakoa izango da.

19. Artikulutik ezabatu behar da Elkargoak erantzukizunik hartuko ez duela esaten duen zatia, eta horren ordez, dagokion erantzukizun subsidiarioa jaso. Adierazi den bezala, Elkargoak subsidiarioki kalteak bere gain hartu behar ditu,

<sup>15</sup> Hala adierazten da EPLaren 13.1 artikuluan ere.

<sup>16</sup> 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5koa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa (BOE, 190. zk. 2010eko abuztuaren 6koa).



lan profesionala onestean agerian utzi behar ziren hutsegiteen ondorio direnean eta lan zehatz horretan onetsi diren elementuekin zuzenean lotuta daudenean.

#### 4. Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea

**20.** Lehia Bidegabearen Legeak debeku oso zehatzak xedatzen ditu<sup>17</sup>. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, honakoa xedatzen baitu: «Kontsumitzaile eta erabiltzaileenganako harremanetan, ulertuko da fede onak eskatzen duenaren kontrakoa dela enpresaburu edo profesional batek prestasun profesionalaren kontrako jokabide bat izatea –prestasun profesionala merkatuko praktika zintzoen arabera enpresaburu batengandik espero daitekeen gaitasunaren eta arreta berezien mailatzat ulerturik–, modu adierazgarrian desorekatzen badu edo desoreka badezake jardunbide horren xede den kontsumitzaile arruntaren jokabide ekonomikoa, edo xede-taldeko batez besteko kidearena –kontsumitzaile-talde konkretu bati zuzenduriko merkataritza-jardunbidea bada–». Klausula orokor horrekin bat, lege horretako 5. artikulutik hasi eta 31. artikulura sailkatutako jardunbideak bidegabetzat har daitezke. Publizitatea dela eta, Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorrak legez kontrakotzat jotzen dituen praktikak baino ezin dira bidegabetzat jo<sup>18</sup>.

**21.** Estatutuetan, artikulua hauetan arautzen da gai hori:

##### **4. artikulua. Eginkizunak.**

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

h) Elkargokideen artean harmonia eta lankidetzat sustatzea, haien arteko lehia desleiala eragotziz, arrazoi profesionalengatik haien artean sortzen diren gatazketan elkargokideak adiskidetzen saiatuz edo arbitrajea eginez, eta dagokionean, beren eginkizun profesionalak betetzean sortutako desadostasunak konpontzea, interesdunek eskaturiko laudoaren bitartez hain zuzen ere.

<sup>17</sup> 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa, 1991ko urtarrilaren 11ko BOE, 10. zk. HAUEN BIDEZ ALDATU DA: 3/2014 Legea, martxoaren 27koa (Erref. BOE-A-2014-3329); 29/2009 Legea, abenduaren 30ekoa (Erref. BOE-A-2009-21162); 14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa (Erref. BOE-A-2003-21187); 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa (Erref. BOE-A-2000-323); 52/1999 Legea, abenduaren 28koa (Erref. BOE-A-1999-24706).

<sup>18</sup> 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa (BOE, 274. zk., 1988ko azaroaren 15ekoa). HAUEN BIDEZ ALDATU DA: 3/2014 Legea, martxoaren 27koa (Erref. BOE-A-2014-3329); 12/2002 Legea, abenduaren 26koa (Erref. BOE-A-2012-15595); 29/2009 Legea, abenduaren 30ekoa (Erref. BOE-A-2009-21162); 28/2005 Legea, abenduaren 26koa (Erref. BOE-A-2005-21261); 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa (Erref. BOE-A-A-2004-21760); 39/2002 Legea, urriaren 28koa (Erref. BOE-A-2002-20855); 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa (Erref. BOE-A-2000-323).

**60. artikulua. Hutsegiteen sailkapena**

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Hutsegite larriak ondokoak dira:

(...)

g) Lehia desleialeko ekintzak egitea.

**22. Elkargoak 4. h) artikulua honela idaztea onartu du:**

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

h) Elkargokideen artean harmonia eta lankidetzaz sustatzea, legeek ezarritakoari jarraiki haien arteko lehia desleiala eragotziz, arrazoi profesionalengatik haien artean sortzen diren gatazketan elkargokideak adiskidetzen saiatuz edo arbitrajea eginez, eta dagokionean, beren eginkizun profesionalak betetzean sortutako desadostasunak konpontzea, interesdunek eskaturiko laudoaren bitartez hain zuzen ere.

**23.** Arau horiei dagokienez, kontuan izan beharra dago lehia bidegabea (edo desleiala) termino orokorra erabiltzeak lehia murriztea ekar dezakeela; izan ere, Legean jasotakoa baino esanahi pixka bat zabalagoarekin erabili ohi da termino hori.

Zentzu horretan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenak lehia bidegabeari buruz jasotzen duena gogoratu behar da: «lehia bidegabearen kasuak definitzea Legeari baino ez dagokio, baita epaileei horiek epaitzea ere. Horregatik, elkargoek epailearengana jo behar dute lehia bidegabearen kasuetan, eta araubide zigortzaileetan, lehia bidegabeak eragindako arau-hausteak epaile batek hala zigortzen duen kasuetan aplikatuko dira»<sup>19</sup>.

Lehia Bidegabearen Legeak jasotzen dituen motek oso kasu gutxitan eragiten diete jardunbide profesionalari, eta hori gertatzekotan, Elkargoak lege-ekintzak bidera ditzake autoritate judizialen aurrean. Horrenbestez, Elkargoaren eginkizuna izango da identifikatzen diren praktika bidegabeak eskumena duten agintariei jakinaraztea, eta diziplina-neurriak hartzea, Lehia Bidegabearen Legeak zigortutako jokabideak gertatu direla adierazten duen ebazpen judizialik egonez gero, soilik.

Agindu hori garatu eta baliatzeko modua zorrozki zaindu behar da. Izan ere, adierazi dugun bezala, LDLari men egitea ez zaio soilik estatutuen idazketari mugatu behar, baita Elkargoaren ekintza eta erabakiei ere. Beraz, arreta bereziz jokatu behar da, gutxieneko ordutegia ezartzea, ordainsariak

<sup>19</sup> (Ikus LBN). *Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondorengo Elkargo Profesionalen buruzko txostena*. op. cit., 75. or.



koordinatzea edo horiek aske ezartzeko murriztapenak eta profesionalen jakinarazpen komertzialetan mugak ezartzea edo sustatzea bezalako jokabideak finkatu edo bultzatzen dituen elementurik ez jasotzeko.

Hortaz, nahiz eta ongi balioesten dugun aginduan jasotzea lehia bidegabeari dagokionean legeetan ezarritakoari heldu behar zaiola, 4 h eta 60 g manamenduak aldatu behar dira, ez dadin lehia bidegabera eragiten duten jokabideei buruzko zalantzarik egon, bai eta Elkargoak diziplina-neurriak hartuko dituela ebazpen judiziala eman denean bakarrik.

## 5. Elkargoak elkargokideei lehia egitea

**24.** Lehia Desleialaren Legeak ezartzen du «arauak urratzea» lehia bidegabera izan daitekeela.

Bestalde, EELaren 24 artikulua hau dio

«Hauek dira Elkargo profesionalen funtzioak: (...)

Eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo bere ekimenez lantzen dituen txostenak ematea».

Amaitzeko, EELaren 5. artikulua Elkargoko kidea izateko betekizunak ezartzen ditu

«1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Dagokion tituluaren jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Ez egotea desgaiakuntza profesionaleko egoeran.

c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.

d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Soilik legeak hala araututa, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira».

**25.** Estatutuek honako hau jasotzen dute:

**47. artikulua. Elkargoaren baliabide ekonomikoen jatorria.**

Elkargoaren baliabide ekonomikoak hurrengoak dira:

(...)

d) Gobernu Batzordeak edozein gairen inguruan ematen dituen txosten, irizpen, ebazpen edo aholkuengatik lortutako eskubideak.

**26.** Gobernu Batzordearen funtzioak Estatutuen 31. artikuluan zerrendatzen dira, eta horien artean dago txostenak, ebazpenak eta irizpenak ematea. Hala





ere, 47. artikulua ere horiei erreferentzia egiten die, Elkargoaren diru-sarrera direlako; baina ez ditu txosten, ebazpen eta irizpen horien zer-nolakoak zehazten. Aitzitik, adierazi behar dugu Elkargoak burututako lan profesionalak badira, elkargokideen berezkoz hartu beharko direla, Elkargoak ez baitu horrelako jarduerarik berez egiteko titulurik. Bestela, Elkargoa haren elkargokideekin arituko litzateke lehiari. Bi ondorio izan ditzake Elkargoak psikologoaren berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat litzateke. Zerbitzuak emateko erreferentziako eskaintzailea izan liteke, eta profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.
- Eragile batek (Elkargoak) lehentasuna izatea Elkargoko kideen kaltetan, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, Elkargoak «beretzat har» lezake negozioa, zerbitzu jakin batzuk Elkargo barnean banatuta.

Ondorioz, aipatutako artikulua ezabatzea erabakitzen ez bada, proposatzen dugu honako hau eranstea: «Diru-sarrera horiek ezingo dira inolaz ere sortu Elkargoak psikologoaren berezko zerbitzuak ematek».

## **6. Gaizki egindako lanengatik erantzukizuna: erantzukizun zibileko aseguruak**

**27.** Aterki legearen 21. artikulua erantzukizun profesionaleko aseguru eta bermeei buruzkoa da, eta hark xedatu zuen lege baten aginduz baizik ezin zaiela exijitu zerbitzu-emaleei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko beste bermeren bat sinatzea, zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzeko<sup>20</sup>. Artikulu berak ezarri du obligazio hori legez noiz exijituko den erabakitzeko irizpide gisa ematen diren zerbitzuek zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzea hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari.

EELaren 12. artikulua, hala, xedatu du tituludun profesionalak aseguru baten bidez estali behar dituztela beren jardura profesionalak eragin litzakeen arriskuak, eta lanbideak elkargo profesionalik badu, Elkargoak hartu beharreko neurriak hartuko dituela bere kideek betebeharrak hori betetzen dutela bermatzeko.

<sup>20</sup> Aterki legearen 21. artikulua. Lanbide-erantzukizuneko aseguruak eta bermeak. 1. Zerbitzu-emaleei exijitu ahal izango zaie lege-mailako arau baten bidez erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko beste berme bat sinatzea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzearen, ematen diren zerbitzuek hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzen dieten kasuetan. Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.



**28. Gai hori ESTATUTUETAN araututa dago, honako manamendu hauetan:**

**12. artikulua. Elkargokideen betebeharrak**

a) Elkargokide aktiboen betebeharrak ondokoak dira:

11) Lanean aritzeak ekar ditzakeen erantzukizun zibileko arriskuak dagokion aseguruarekin estaltzea. Betebehar hori ez zaie eskatuko hirugarrenen eskubideak dagokion jarduerari aplikatu daitezkeen beste araudi batek bermatzen baldin baditu, edo eskubideok helburu bereko aplikazio orokorreko erabakiek babesten baldin badituzte.

**60. artikulua. Hutsegiteen sailkapena**

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Hutsegite larriak ondokoak dira:

(...)

d) Asegurua izateko betebeharra ez betetzea.

**29. Alde horretatik, Elkargoak hauek izango beharko ditu kontuan:**

- Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.

- Hori dela eta, elkargoak aintzat izan beharko du ezin dituela inola ere bere kideak aseguru edo aseguru-etxe jakin batekin bat egitera behartu.

**30.** Aurretik aipatutakoari jarraiki, soilik legearen bidez eskatu ahal izango zaie zerbitzu-emaleei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat izatea edo baliokidea den beste berme bat izatea. Aseguru edo berme horrek zerbitzua ematean sor daitezkeen kalteak estaltzeko modukoa izan beharko du. Horrez gain, aurreko manamenduetan argitu behar da aseguru izateko betebeharra indarreko legeriak hala eskatzen duenean baino ez da egingo.

## **7. Bezeroak lortzea**

**31.** LBNk, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruz igorritako txostenean, honako hau adierazi zuen: «Zerbitzu bat ematerakoan, profesionalak bezeroak lortzeko duen gaitasuna funtsezko alderdia da, horren arabera baita haren jarduerak izango duen arrakasta, hein handi batean. Ildo horretatik, profesionalak askatasuna izan behar du bezeroak erakartzeko egokien deritzen baliabideak hautatzeko, bai eta langile espezializatuak kontratatuzko aukera eduki ere. Horrez gain, jarduera profesionala sustatzeko baliabide hori hainbat bitartekoren osagarria da



(publizitatea, esaterako), eta profesionalei aukera ematen die kasu zehatz bakoitzerako egokien deritzoten estrategia garatzeko<sup>21</sup>».

**32.** Elkargoaren Estatutuek debeku hau ezartzen dute:

**12 (bis) artikulua.**

1. Debekuak

Psikologo elkargokideek debekatuta daukate honako hau guztia:

a) Beste profesional batzuei komisioak ordaintzea, bezeroak edo pazienteak aholkatzeagatik.

**33.** Artikuluak bezeroak lortzeari dagokionez ezartzen duen murriztapena ezabatu behar da, kontra egiten baitio jarduera gauzatzean izan beharreko lehia askeari buruzko araudiari.

## **8. Elkargoak kideen jarduera kontrolatzea**

**34.** ELParen 5. i artikulua Elkargoei egozten die lanbidearen antolamendua: «Bere eskuduntzaren eremuan, lanbidea antolatzea, irizpide deontologikoak jarraituz eta partikularren eskubideak errespetatuz burutu dadin; horretarako, maila profesionalean eta elkargo mailan bere diziplinazko ahalmena erabiliko du».

**35.** Estatutuak elkargokideei betebeharrak hauek ezartzen dizkie:

**12. artikulua. Elkargokideen betebeharrak**

a) Elkargokide aktiboen betebeharrak ondokoak dira: (...)

3) Deklarazio profesionalak, kontratuak eta estatutuetako edo erregelamenduzko xedapenei jarraiki eskatzen zaizkien gainerako dokumentu guztiak Elkargolari aurkeztea.

Artikulu horretan ezarritako neurrien modukoak baliagarriak izan daitezke indarreko legediak elkargokideei baimentzen ez dizkien eta Elkargoak kontrolatu behar dituen jardunbideak identifikatzeko. Dena dela, Elkargoak prezioen lehia ekiditeko ere erabil ditzake, horiek kontrolatuz (esaterako, fakturak eskatzea tarifak egiaztatzeke), edo lehiaren kontrako beste jokabide batzuk susta ditzake. Hortaz, Elkargoa kontu handiz aritu beharko da, bide horretatik lortzen duen dokumentazioaz baliatzean.

<sup>21</sup> (Ikus LBN). *Elkargo Profesionalei buruzko txostena*, op. cit., 79. or.



## 9. Argitara ematea

**36.** Omnibus legeak Elkargo Profesionalei buruzko Estatuko Legea aldatu zuen, Elkargoko profesionalen merkataritza-mezuetan Legeak aurreikusi gabeko mugak ezartzeko ahalmena kenduz; horrenbestez, elkargoek beren arauetan publizitate-kontuei lotuta ezar ditzaketen xedapenek —esate baterako, lanbidearen independentzia eta osotasuna babestekoak— hauxe baino ezin diezaiekete eskatu elkargokideei: legeekin bat etortzea.

Hala, lege horren 2.5. artikuluko bigarren paragrafoan honako hau adierazten da: «Elkargoen estatutuetan edo Elkargoek onartzen dituzten kode deontologikoetan, berariazko aurreikuspenak jaso daitezke, elkargokideei eskatzeko komunikazio-kontuetan legearekin bat datorren jokabidea izan dezaten. Horren xedea da lanbidearen independentzia eta osotasuna babestea, bai eta lanbide-sekretua ere, psikologoen kasuan».

**37.** Horrenbestez, Elkargoen arauak edo kode deontologikoak ezin dituzte muga handiagoak ezarri azaroaren 11ko Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorrak baino. Gainera, kontuan izan behar da lege horren 5.1. artikuluan hau ezartzen dela: «Gai hauei buruzko publizitatea berei buruzko arau bereziek arautuko dute edo aurretiazko administrazio-baimenaren araubidearen mende jarri ahal izango da: material edo produktu sanitarioak eta erregelamendu tekniko-sanitarioen mende daudenak; pertsonen osasunarentzat, segurtasunarentzat edo ondarearentzat arriskugarriak izan daitezkeen produktu, ondasun, jarduera eta zerbitzuak; eta zozketa-, desafio- edo zori-jokoak. Araubide hori ezarri ahal izango da, orobat, Konstituzioan aitorturiko balio eta eskubideen babesak hala eskatzen duenean»<sup>22</sup>.

**38.** Gai hori Estatutuetan araututa dago 18. artikuluan.

**18. artikulua. Publizitatea eta lehia desleiala.**

Psikologoak bere lana lehia askeko erregimenean egingo du, eta zerbitzuak eskaintzeari eta bere ordaina zehazteari dagokionez lehiaren defentsari, lehia desleialari eta publizitateari buruzko legedia jarraitu beharko du.

**60. artikulua. Hutsegiteen sailkapena**

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Hutsegite arinak ondokoak dira:

<sup>22</sup> Horrela dago idatzita 29/2009 Legean, azaroaren 30ekoan. Lege horrek lehia desleialaren eta publizitatearen lege-araubidea aldatu zuen, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak hobeto babesteko. (2009ko abenduaren 31ko BOE, 315. zk.).



(...)

d) Publizitate profesionalari buruzko arauak ez betetzea.

Elkargoak 60. artikulua d) hizkia aldatzeko izapideak egin ditu, eta ondoko idazketa onartu:

**60. artikulua. Sailkapena**

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Hutsegite arinak ondokoak dira:

(...)

d) Publizitate profesionala arautzen duten arauak, Legeak eta Dekretuak ez betetzea.

**39.** Onartutako idazketak ez du inolako hobekuntzarik egiten aurrekoaren aldean. Komenigarria litzateke estatutuek berariaz jaso dezatela Elkargoak ezingo duela elkargo-araudiaren bidez (kode deontologikoan, adibidez) ez murriztapenik ez zigorrik ezarri, publizitate-araudi zehatza (hau da, publizitateari buruzko lege orokorra) urratzen ez duen publizitatea egiteagatik.

Honela idaztea proposatzen da:

**60. artikulua. Sailkapena**

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Hutsegite arinak ondokoak dira:

(...)

d) Publizitate profesionalari buruzko arauak ez betetzea, Publizitateari buruzko Lege Orokorrak, eta, kasuan kasu, hura garatzen duten xedapenek ezarritakoaren arabera.

## 10. Perituen zerrendak

**40.** ELParen 5.h) artikuluan, honako hau arautzen da Elkargoen berezko eginkizun gisa: «Gai judizialetan aditu gisa esku hartzeko eska dakiekeen elkargokideen zerrenda auzitegiei ematea edo Elkargoak berak aukeratzea, hala dagokionean, eta betiere legee jarraiki».

**41.** Estatutuetan, artikulua honetan arautzen da gai hori:

**4. artikulua. Funtzioak**

Elkargoak, haren helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu:

n) Auzitegiei gai judizialetan peritu gisa lan egin dezaketan elkargokideen zerrenda ematea, edo Elkargoak berak haiek aukeratzea, dagokionean.

**31. artikulua. Gobernu Batzordearen eginkizunak.**

Elkargoaren Gobernu Batzordeari honako egiteko hauek dagozkie:

30. Justizia Administrazioan esku hartu dezaketen psikologoek zerrendak antolatzea.

**42.** Elkargoak kontuan hartu behar du kasu bakoitzean zerrenda horiek egiteko erabili behar den metodoak funtzio horiek egitea eragotz dezakeela. Perituen zerrendak egitean, ezin da justifikaziorik ez duen eta nahi duten profesional guztiei sartzea eragozten dien inskripzio-eskakizunik ezarri. Zehazki, Prozedura Zibilaren Legean (PZL) edo bestelako lege prozesalean xedatutakoa betez, epaitegietara bidali beharreko peritu judizialen zerrendak egitean, Elkargoak ezingo du lege horietan araututa ez dauden baldintzak jarri. Hori eginez gero, justifikatuta ez dauden oztopoak jarriko lizkieke profesionali zerrenda horietan sartzeko<sup>23</sup>.

Horrenbestez, Elkargoak ezin ditu araudi prozesalean zehatz-mehatz finkatutakoak baino baldintza gehiago eskatuko, eta araudiak ez du peritu izateko baldintzen artean ezartzen kualifikazio-eskakizunik (elkargo profesional baten kide izatea, kasu) nahiz lurralde-eskakizunik betetzea.

Lehiaren autoritateek aukera izan dute lehiaren kontrako jardueri buruzko ebazpena emateko, aditu judizialen zerrendak kudeatzeari dagokionean. Zenbaitetan, zerrendaren arduradun zen Elkargoko kide izatea eskatzen zitzaie profesionali, beste zerrenda batzuetan egotearekin bateraezina zela ezartzen zen, prestakuntza zehatza jasotzeko ikastaroak egitea eskatzen zitzaie edo aurretiko lan-esperientzia luzea izatea exijitu<sup>24</sup>.

Hitz batean, Elkargoak egindako kudeaketan, hala nahi duten profesional guztiei sartzea ahalbidetzen dien sistema gardena eta ez-baztertzaila ezarri behar da.

<sup>23</sup> Prozedura Zibilaren Legea, 2000ko urtarrilaren 8ko BOE, 7. zk. Testu finkatua [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2000-323# analisis](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2000-323# analisis) (azken kontsulta 2016ko apirilaren 11n). Zehazki, 340. artikulua baldintza hauek ezartzen ditu peritu gisa jarduteko: «1. Adituek izan behar dute irizpena zein gairi buruzkoa izan eta zein izaeratakoa, eta gai eta izaera horiei dagokien titulu ofiziala. Lanbide-titulu ofizialik ez duten gaitan, adituak izendatuko dira, gaiotako jakitun direnen artean. 2. Halaber, aditu-lana zein gairi buruzkoa izan eta horren ikerketan aritzen diren akademiei eta kultura- nahiz zientzia-erakundeei irizpena eska dakieke. Arazo zehatzen inguruan legez gaitutako pertsona juridikoek ere irizpena egin dezakete. (...)»

<sup>24</sup> Hona hemen adibide batzuk: LBNren Kontseiluaren 2009ko otsailaren 9ko Ebazpena, 637/08 espedientean, Valentziako Erkidegoko aditu/arkitektoei dagokiena. LEAren 2014ko ekainaren 25eko Ebazpena, 09/2012 espedientean, Bizkaiko aparejadoreei dagokiena.



## 11. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

**43.** LBNk, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondorengo Elkargo Profesionalei buruz emandako txostenean, honako hau adierazi zuen: «ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Hortaz, merkatuan sartzeko oztopoa dira, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Hala, benetako lehia murriztagoa da, eta, gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake<sup>25</sup>».

**44.** Estatutuetako 47. eta 31. artikuluetan arautzen da gai hori:

**47. artikulua. Elkargoaren ekonomia-baliabideak. Motak.**

Hauek dira elkargoaren baliabide arruntak:

- a) Elkargokide egiteko ordaindu beharreko kuotak.
- b) Batzar Orokorrek onartzen dituen ohiko eta ezohiko kuotak.
- c) Elkargoak ematen dituen zerbitzuengatik ekarpenak.
- d) Gobernu Batzordeak edozein gairen inguruan ematen dituen txosten, irizpen, ebazpen edo aholkuengatik lortutako diru-baliabideak.
- e) Ziurtagiriak emateagatik lortutako diru-baliabideak, zeinak Gobernu Batzordeak zehaztuko baititu.
- f) Inprimaki ofizialak eta baimendutako zigiluak saltzeagatik eta beste zerbitzu orokor batzuek emateagatik lortutakoak.

(...)

**31. artikulua. Gobernu Batzordearen eginkizunak.**

Elkargoaren Gobernu Batzordeari honako egiteko hauek dagozkio:

13. Emandako zerbitzu, proiektu, txosten eta abarregatik sortutako ordainsariak kobratzeaz arduratzea, elkargokideek eskatuta. Kasu horietan, Elkargoak ehuneko bat atxikiko du, Gobernu Batzordeak onartuko duena. Psikologoaren figura –gardena, kalitatezkoa eta etika profesionalduna den lanbide bateko profesional gisa– sustatzeko, Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialak zerbitzu horiek ezarriko ditu, eta elkargokide arruntek eta lanbide-sozietateek zerbitzu horiek erabiltzea bultzatuko du.

<sup>25</sup> LBN. *Elkargo Profesionalei buruzko txostena*, op. cit., 57. or.





**45.** Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, ez lirateke Elkargoko kideen lanaren ordainsarien arabera kalkulatu beharko, Elkargoak haren kideei ematen dizkieten zerbitzuen arabera baizik.

Bestalde, ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua eskatzen dutenek ordaindu beharreko zenbatekoa eta Elkargoari izapide horrek eragiten dion kostua bat etorri behar dute, emandako zerbitzuarekiko orekatua eta proportzionala izan behar da, ezin da bezeroari fakturatutako zenbatekoaren arabera kalkulatu (zenbateko horren gaineko ehuneko bat), eta ezin ditu dagokion prestazioaz kanpoko kostuak barne hartu ere. Hortaz, 31. artikuluan, «Elkargoak ehuneko bat atxikiko du, Gobernu Batzordeak onartuko duena» esaten duen zatia ezabatu behar da.

## **12. Lanbide-sozietateen inskripzioa**

**46.** Lanbide Sozietateen Legearen (LSL) 8. artikulua xedatzen du lanbide-sozietateen eraketa Merkataritza Erregistroan inskribatu behar dela –sozietateak momentu horretan hartuko du izaera juridikoa–, eta, halaber, haren helbideari dagokion Elkargo Profesionalaren Lanbide Sozietateen Erregistroan inskribatu behar dela ere. Horretarako, merkataritza-erregistratzaileak Lanbide Sozietateen Erregistroari ofizioz jakinaraziko dio inskripzioak gauzatu direla<sup>26</sup>.

**47.** Estatutuen 6. bis. 2.3. artikulua honako hau ezartzen du:

**6. bis.2. artikulua. Lanbide-sozietateen inskripzioa:**

3. Lanbide Sozietatea Lanbide Sozietateen Erregistroan —legez eta arauz ezarritako moduan— inskribatzeko betebeharra haren ordezkaritza esleituta dutenena izango da.

**48.** Elkargoak Lanbide Sozietateen Erregistroan ofizioz inskribatu behar ditu lanbide-sozietateak, behin Merkataritza Erregistroak igorritako jakinarazpena jasota, eta, beraz, artikulua horren idazketa aldatu beharko litzateke, LSLra egokitzeko.

## **IV. ONDORIOAK**

**Lehena.-** Elkargoko lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

<sup>26</sup> 2/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, lanbide-sozietateei buruzkoa. 2007ko martxoaren 16ko BOE, 65. zk., 25/2009 Legeak, abenduaren 22koak, aldatutakoa. BOE-A-2009-20725.



**Bigarrenena.-** Elkargoko kide egiteak lehiarekin lotutako gaiak planteatzen ditu, bai merkatura sartzeari dagokionez, bai lanbidearen jardunari dagokionez, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kalte ditzake. Hori dela eta, muga hori justifikatzen dutenean eta interes publikoak kaltetzen direla egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da derrigortasun hori ezartzea (eta betiere lege bidez bakarrik).

**Hirugarrena.-** Edonola ere, elkargoek lanbideetako jarduna antolatzean, elkargokideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak ere babestu behar dituzte, betiere gizartearen interes eta behar orokorrekin bat.

**Laugarrena.-** Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuetako artikulua hauek aldatzea proposatzen du: 5. (Elkargoan sartu beharra); 31.13 (Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua); 4.j (Oniritzia); 47.d (Elkargoak elkargokideei lehia egitea); 6 bis 2. (Lanbide-sozietateen inskripzioa). Baita honako artikulua hauek ezabatzea ere: 4.ñ (Ordainsariei buruzko txostenak eta gutxi gorabeherako ordainsariak); 31.13) [azken bi zatia] (Elkargoaren ekonomia-baliabideak) (Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua); 4.j [azken zatia] (Bezeroak lortzea).

Bilbon, 2016ko apirilaren 26an